

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Hartz-kumearen abenturak



Xabier Etxaniz Erle

Gure literaturako gabezieta bat komikigintzan dugula esango nuke. Komikiak irakurtzeko oso tradizio txikia dugu (Hegoaldean) eta oso gutxi dira genero honetako argitalpenak euskaraz; horregatik eskertzekoa da Astiberri komiki-etxe bilbotar ezagunak eginiko apustua eta esfortzua beren lan batzuk euskaraz ere argitaratzen.

Waluk dugu azken ekarpena arlo horretan. Emilio Ruizen eta Ana Mirallesen artean eginiko elkarlanetako bat, hain zuzen. Ruizen gidoia eta Mirallesen irudiak dituen lan honek hitzaurre bat du hasieran, Ruizek egina, eta bertan galdera bati heltzen dio gidoilariak: “Zein duzu animalia gogokoena?”, eta hainbat animalia kontuak aipatu ondoren Ruizek zera diosku: “Ez dut nahi Artiko-ko hartzak desagertzerik. Hartz zuria da nire animalia gogokoena”.

Eta Artikoko hartz-kume bat, *Waluk*, dugu istorio honen protagonista. Izotzetan eginiko zuloan etorriko ez den amaren zain dagoen hartz-kumea. Eta zulotik irten ondoren munduari, mundu basati eta gogorrari aurre egin beharko diona. Hasieran bakarrik eta gerorago Eskimo hartz handiaren ondoan.


Animalia eder eta handi hauen eguneroko bizitza ageri zaigu *Waluk* honetan; nola ibili behar diren elikatzeko, etsaiei eta beste-lako animaliei nola egiten dieten aurre, gizakion presentziak nolako eragina izan duen beren lurraldean. Kutsadura, turismoa, suntsiketa edo zientzia-

Waluk

ANA MIRALLES

Ilustrazioak: Emilio Ruiz
Itzulpena: Bego Montorio
Astiberri, 2017
48 orrialde
Gazteentzat

Ana Miralles idazlea
(*Madril*, 1959).



larien ikerketa agertuko zaizkigu, besteak beste, istorio entretenigarri eta gomendagarri hauetan. Abenturaz beteriko istorioetan, izan ere, egoera oso ezberdinetan, gosez, jolasten, preso... ikus baitezakegu gure pertsonaia.

Egia da animaliak direla liburu honetako protagonista nagusiak, baina animalia horien bidez, edo animalia horiei esker esan beharko genuke, gizakion jokabideaz egin dezakegu gogoeta. Lurra, Artikoa kasu honetan, nola hondatzen ari garen ikus dezakegu hartzen begiei esker, hartzen gogoeta eta jokabideei esker.

Baita nola aldatzen ari diren animalia horiek gizakion ekintzen eraginez ere. Bego Montoriok ederki itzultitako liburu hau (2011n argitaratu zen etxe berean gaztelaniaz) Astiberri etxearen komiki kate baten hamargarren maila dugu. Gero eta luzeago eta osatuago izango den katea! ■